

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko maiatzaren 2a. IX. urtea. 2.341. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Jende asko bildu zen atzo, LAB sindikatuak Langilearen Nazioarteko Egunaren harira deitutako manifestazioan. I. URKIZU

Amarozko paper fabrika itxita, bukatu da Tolosako paperaren aroa

Legorretara joateko proiektuak porrot egin du eta enpresa itxi dute ◊5

Anjel Arrospide
Aizkolaria

«Urteek ez dute barkatzen; arrastaka irtetea baino, hobe da itxuraz egitea»

33 urte aizkoran aritu eta gero, txapelketak utziko ditu Leaburuko kirolariak

Elkarrizketa ◊6

Jendetza bildu da Larraitzen, Aralarko larreen irekiera jaian

Amasa-Villabonako Komizarren ere lehen aldiz egin dute festa ◊2

Burujabetza aldarrikatu du LABek

Sindikatuak deituta manifestazioa egin dute Tolosako Trianguloatik abiatuta, Maiatzaren Lehena dela eta; 800 bat pertsona bildu dira

LABen ustez Espainiako Gobernuaren erreformen aurrean «Euskal Herria eta euskal herritarrak burujabeak izatea» da irtenbidea ◊4



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



“ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 3, OSTEguna • 17:00etatik 21:00etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

www.tosaldea.com • Santa Lutzia 17 • TOLOSA • 943 65 11 47 • idazkaritza@tolosaldea.com

Abereei Aralarko larreak ireki dizkiete, uda bertan pasatzeko

18.000 ardi eta 1.400 bat behi eta behor igoko dira; jendez lepo betez en Larraitzeko atsedean lekua, festa giroan

Eneritz Maiz Larraitz

Atzo goizean goizetik itxura paregabea hartu zuen Larraitzek. Aralarko larreak irekitzeko festa izaten da maiatzaren lehen egunean, eta jendez bete zen. Aurreko asteetako euriak tartetxo bat hartu zuen, eta atzoko festari kolore pixka bat eman zion eguzkiak.

10:00etarako zabalik zeuden esku langileen eta bertako produktuen saltzaileen postuak. Kortexe ugari izan zen, eta jendeak autobusa edota oinak erabili behar izan zituen Abaltzisketatik Larraitzera gerturatzen.

Eguerdia pasata ireki zuten abereak larreetara igotzeko langa. Atzotik hasi eta urria bukarara arte, 18.000 ardi eta 1.400 bat behi eta behor izango dira Enirio-Aralar mankomunitateko lurretan. Abere ugari ikus zitezkeen eta baita, hegazti harrapakariak ikuskizuna ere.

Idi pareta eta zaldiaren arteko lehia ere izan zen. Idiek 1.100 kiloko harria, eta zaldiak 1.000 kiloko



Larreak ireki zituzteneko unea; jendetza elkartu zen Larraitzen festa giroan murgiltzeko. IÑAKI GURRUTXAGA

arekin egin behar izan zituzten plazak. Hogei minutu izan zituzten harriari tiraka aritzeko, eta Zaldiak lortu zuen garaipena 71 plaza eginda. Idiek, berriz, 59 plaza egin zituzten.

Euri zaparrada batek ere harrapatu zituen bertan zeudenak, baina hala eta guztiz ere, ez zuen giroa zapuztu. Arratsaldean ere erromeria izan zen.



Harrapakariak ikuskizunaz gain, abereak izan ziren protagonista. IG

Irudia › Amasa-Villabona



LEHEN LARRE IREKIERA KOMIZARREN

Amasa-Villabonako Udalak lehen aldiz antolatu du larre irekiera Komizarren. Atzo goizean, herriko abereak larreetara igo zituzten. Lehen festa egun honek erantzun ona izan du. Jende asko elkartu

zen, eta horretan, eguraldi onak lagundu zuen. Bertan elkartu ziren herritarrek, abereak ikusteaz gain, hamaitakoa eta erromeria ere izan zituzten lagun. M.G.

Herritarren artean erretako txekorra jan dute

Baliarraingo Atari Soro pilotalekua jendez bete zen mahaiaren bueltan eseri eta burruntzian erretako txekorra jateko

E. Maiz Baliarrain

Txekor erre bazkaldu zuten, atzo, Baliarraingo Atari Soro pilotalekuan elkartu zirenek. 180 lagunetik gora izan ziren mahaiaren bueltan eseri zirenak.

Pilotalekua ederki bete zuten, eta ezin hobeto erretako txekorra

jan ere bai. Urteak daramatzate, herritarren artean txekorra erretzen, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Maiatzaren lehen eguna aprobetxatzen dute herritarrek, lagunak eta familiak elkartzeko egun polita igarotzeko. Herritarren artean egindako lana da. Gauean zehar, sua zainduz txekorra buelta eta buelta erretzen dute. Menuan, txorizo egosia, txekorra entsaladarekin eta postrea izaten dituzte tripa betetzeko. Aurretik, Aramako lore saltzailea izan zen plazan, eta udaberriko loreak erosteko aukera izan zuten.



Adin guztietako jendea elkartu zen pilotalekuan; 180 lagun inguru izan ziren. E. MAIZ

Bi urte inguru dira jada, bertsozale talde bat elkartu, eta Lizardi elkartean bertso eskola berriro martxan jarri zenez geroztik. Gaur egun, Mikel Artola eta Amaia Agirre irakasleekin aritzen dira, ostegunero.

Bat-bateko kantuan trebatuz

Itzea Urkizu

Oinez oin, errima bat bestearenganaino eramate horretan aritzen dira, ostegunero, Tolosako helduen bertso eskolako ki-deak. Duela bizpahiru urte lagun talde txikia elkartzen hasi zen, baina gaur egun, eskualdeko 23 bertsozale ingururen hitzordua izaten da Lizardi elkartekoa, ostegunero.

Antzina, belaualdiz belaualdi eta ahoz aho transmititzen zen zerbait zen bertsojaritza. 1980ko hamarkadan bilakatu zen, bat-batekoa, irakas zitekeen zerbait. Xabier Amurizak izan zuen, horretan, eraginik handiena, *Zu ere bertsolari* argitaratu baitzuen, bertsojaritza irakasteko metodo didaktikoak azalduz. Hasiera hartan, askok ideia erotzat hartu zuten Amurizak proposatutakoa; bertso eskolen loraldia, ordea, hazi egin zen pixkana, eta, gaur egun ezinbesteko zerbait dela uste dute Tolosako bertso eskolako Mikel Artola eta Amaia Agirre irakasleek.

«Bertsojaritza gaur egun dagoen egoeraren arrazoi nagusia, Bertsozale Elkartearen sorrera eta lana da, izan zuten intuizioa miresgarria da», dio Artolak. Dena den, euskal kulturaren arloan jende askok borondatez egiten duen lana du interesgarritzat alegiarrak, bertsojaritzak gaur eguner bitarte iraute horretan.

Orain dela bi urte inguru jaso zuen Mikel Artola alegiarrak, Bixente Gorostidiren deia: «Tolosan bertso eskola martxan jarri nahi zutela eta, lagunduko ote nien esan zidaten. Orduan ez zen irakaslerik, eta ostegunero bil-tzen hasi ginen. Taldea sortzea eta eustea izan zen lehen helburua, aurtengo ikasturtean indar gehiago jarraitzeko. Hala izan da, eta Amaia Agirre eta biok gabilta aurten».

Iaz elkartzen hasi zen talde



Ostegunero-ostegunero, ia 23 lagun elkartzen dira Lizardi elkartean, bertsoan ikasteko. I URKIZU

hura handitzen joan zen pixkana, eta ikasleen arteko maila ere desberdina zen. «Beste irakasle baten beharra antzeman zuten, eta



Bertsoak baino, inguruan elkartzen den jendeak aberasten du bertso eskola»

AMAIA AGIRRE
Bertsolaria eta bertso eskolako irakaslea

«Bertsotarako helduen motibazioa haurrena baino askoz ere iraunkorragoa da»

MIKEL ARTOLA
Bertsolaria eta bertso eskolako irakaslea

bi talde egin zituztenez, nik bieta-ko baten ardura hartu nuen», dio Amaia Agirrek.

Bi irakasleak bat datoz Tolosa-

ko bertso eskolako giroarekin. «Astero-astero denok elkartzea zaila izaten da, baina jendea ilusioz eta gogotsu ari da, eta askorentzat asteroko zita garrantzitsua izaten da. Oso giro ona dugu denon artean, eta horrek taldeari izaera polita ematen dio», nabarmendu du Agirrek.

Mikel Artolak, bere aldetik, taldea handi samarra dela dio, baina bertsozaleak animatuko lituzke Lizardira bertaratzera: «Nahi duenarentzat sarrera libre dago Lizardin. Talde jatorria aurkituko du etortzen denak».

Bertsoak duen xarma hori

1.200 ikasle aritzen dira Tolosaldean, hezkuntza arautuan, bertsojaritza ikasgelan lantzen. Amaia Agirre eta Mikel Artola ere aritzen dira, haur eta gazte-txoei bertsoan erakusten. Haurrek eta helduek bertsoarekiko

duten jarrera, ordea, oso desberdina dela diote biek.

Ikasleen gogo, helburu eta jarrerak nabarmendu dituzte biek, desberdintasun moduan. «Haurrek gora-behera asko izaten dituzte, eta batzuetan gustura dau den arren, besteetan etxera alde egin nahi izaten dute. Helduen motibazioa askoz ere iraunkorragoa da», dio Artolak. Amaia Agirrek ere, helduen helburuak azpimarratu nahi izan ditu: «Bestelako helburuak dituzte, oro har. Bertsoarekin gozatzea, lagunarteko parte sentitzea, baloreak lantzea eta kantuan gozatzea biltzen dute helduek. Bertsoarekiko duten maitasun eta zaletasun hori garatzeko lekuak dira eurentzat bertso eskolak».

Hala ere, zer ote du bertsoak, Tolosako Lizardi elkartean hainbeste jende elkartzeko? «Bertsoak baino, inguruan elkartzen den

jendeak aberasten du bertso eskola. Gainera, bertsozaintza ez da bertsoak sortzea soilik. Horren atzean balore eta aberastasun handiak daude», Amaia Agirren ustez. «Bakoitzak bere ale-txoa ezartzen dio taldeari, eta denen artean sortzen den konplizitate emankorra da, oso. Elkarri entzuten jakitea, batak bestea den bezala onartzea eta talde baten parte sentitzea, izugarria da gaur egun bizi garen gizarte honetan», gaineratu du.

Bertsoaren bat-bateotasuna azpimarratzea gustuko duela dio, kasu honetan, Artolak: «Bertsoak badu beste kultur adierazpide askok ez duten zerbait: bat-batean egin beharrik sortzen duen bertigo edo zirrara hori. Jakina, gaur egun bertsojaritzak duen prestigioak ere laguntzen du jendea bertso eskoletara erakar-tzen».



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Gran Canaria 2014
saskibaloi partida

Maiatzak 6
Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

Subegi Eguneko Kontzertuak

Maiatzak 12 • Larunbata • 20:30ean
Ibarrako Emeterio Arrese parkean



Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira

«Bestelako Euskal Herria» eraiki behar dela dio LAB sindikatuak

Murrizketa eta erreformen aurkako aldarriak nagusi izan dira maiatzaren 1eko manifestazioan

Itzea Urkizu Tolosa

12:00etan abiatu zen atzo, Tolosaldea eta Goierriko langileak bildu dituen LAB sindikatuaren manifestazioa. *Langileon Euskal Herria helburu, lotu borrokari!* lelopean, «bestelako Euskal Herria» eraikitzeko beharra nabarmendu zuten.

Sindikatu abertzaleak «abertasunaren eta lanaren banaketa justuan» oinarritutako Euskal Herria eraikitzeko deia egin zuten, eta sektore publiko sendo eta eraginkorra, osasun eta hezkuntza unibertsala, babes soziala, nahiz emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna ere ildo nagusi

siztat jo zituzten, 800 pertsona inguru elkartu ziren manifestazioan. Bide horretan, errespetua eskatu zuten: «Denaren gainetik, erabakiak herritarrok hartu behar ditugu».

Inposaketan, murrizketan eta erreformaren aurkako oihuak entzun ahal izan ziren ibilbidean barrena, eta baita banketxeen aurkakoak ere. «Ez daude behartuta hartzen dituzten neurri guztiak hartzera, horrela egitea erabaki

Erabakiak herritarrek hartu behar dituztela azpimarratu zuen sindikatu abertzaleak

dute: herritarrak miseriara kondenatu dituzte, «merkatuak lasaitzeko», azaldu zuen sindikatuak.

Honen guztiaren aurrean, «bide bakarra» ikusten dutela azpimarratu zuten bertaratuek: «Euskal Herria eta euskal herri-



Manifestazioa 12:00etan abiatu zen Triangulua plazatik, Tolosaldeko eta Goierriko langileekin. I. URKIZU

tarrak burujabeakizatea. Burujabeak merkatuen diktaduraren aurrean, burujabeak estatuen inposaketan aurrean. Egoera irauli behar dugu horretarako, galdutako boterea berreskuratu behar dugu». Aipaturiko botere horiek berreskuratzeko, «borrokatu egin behar» dela aldarrikatu zuten, era berean.

Hitz batean, LABen ustez, bestelako Euskal Herria eraikitzeko momentua da: «Momentua da pa-

tronalaren asmoak lantokiz lantoki eta sektorez sektore gelditzean, bankuari gure bizitzekin ez dela jolasten argi uzteko eta erakundeak herritarren zerbitzura kokatzera behartzeko. Ez dute sekula lortuko euskal langileria burumakur eta etsita ikustea».

Azken neurrien aurka

Tolosaldeko LAB sindikatuko langileek, 2012ko Maiatzaren Lehena «testuinguru berezian» eto-

ri dela azaldu zuten pasa den astean: «Krisi ekonomiko bete-betean, astez aste erabaki eta murrizketa berriak inposatzen ari dira; azkenak, osasungintzakoak eta hezkuntzakoak».

Honen harira, eskualdean osasun publikoaren esparruan dagoen azuia hipzide izan zuten, eta TOPA koordinakundearekin batera, Asuncion klinika publiko egiteko beharra nabarmendu zuten sindikatuak.

BERRIA egunkarian udan KAZETARI PRAKTIKAK egiteko deialdia

PROBA EGITEKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde kultur parkea.
ORDUA: arratsaldeko lauretan.

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 1. gelan.
ORDUA: eguerdiko hamabietan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).
ORDUA: goizeko bederlatzi eta erdietan.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 9a.
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratxeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre).
ORDUA: goizeko hamarretan.

Probara curriculuma ekarri behar da




Mahai ingurua

Maiatzak 7 - Astelehena
20:00etan, Tolosako kultur etxean

TOLOSALDEKO hitza info
ETA LEITZALDEKO

ibilaldirako girotzen...

- Jon Ormazabal (Aralarko Adiskideak)
- Hur Lertxundi (sendagilea)
- Alberto Luengo (biologoa)
- Demetrio Bengoa (mendizalea)
- Nekane Tolosa (mendizalea)
- Maddi Bengoetxea (Aizkardi mendi elkarte)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amaroz Paper Fabrika enpresa itxi dute, Legorretara lekuz aldatzeko proiektuak ez baitu aurrera egin

Imanol Garcia Landa

Urtarrilaren 15ean egin zuten Amaroz Paper Fabrika enpresaren kitapena, eta martxoaren 26an eman zitoten iraukitzea, beraz, data horretan eten zituzten langileen kontratuak. Azken urteotan 120 langile inguru gelditu dira kalean, horietatik 105 behin betiko itxi denean. Tolosan zegoen azkeneko paper fabrika zen Amarozkoa. Jarduera gaizki zegoela ikusita, saiakera egin zuten Legorretako Paperalia enpresa erosiz, tartean langileek ere dirua jarri, baina azkenean ezin izan dute lantegia aurrera atera.

Langile gehienak 50 urtetik gorakoak ziren. Zenbaitzuk, zortzi inguru, aurrejubilazio egoeran zeuden, baina enpresa itxi denez, horiek ere langabezian gelditu dira. «Azken urteotan ez zen langile berri asko sartu, eta beraz, gazte gutxi zeuden enpresan», dio Benito Sanchezek, enpresan LABeko ordezkaria izan zenak. Langileetatik batzuk, 15 inguru, lana lortu dute beste paper fabrika batzuetan.

Luis Manuel Agirre papergintzako ELAren arduradunak azaldu duenez, bilera egin zuten langileekin jubilazioa begira egon daitezkeen arazoan berri emateko. «Lege berriarekin 61 urte arte itxaron behar dute jubilatzeke. Tarte horretan lan hitzarmen bat eginez gero, adibidez sei hilabetekoa, agian ez dira gero jubilatuko 61 urterekin, baizik 63 urterekin. Kontratu bat tartean izanik, itxi den enpresa batean lanean zeuden baldintza desagertu egiten da legearen arabera».

Egoitz Iturbek ELAko koordinatzaileak zehaztu duenez, lege berriak adin horietako langileei «gutziz kaltetzen» die: «Alde bate-tik, zaila da lana lortzea, eta, bestetik, lana lortuz gero, jubilazioa kobratzen hasteko kaltegarria da». Amaroz Paper Fabrikako langileen artean hainbat egoera daudela dio Agirrek, eta horietako batzuk «oso larri» daudela.

Itxierarekin amaitu den saiakera



Legorretako Paperalia enpresaren instalazioak erosi zituen Amarozko paper fabrikak. GOIERRIKO HITZA

Olatz Amiano LABeko ordezkariak azaldu duenez, paper fabrikaren egoera «benetan txarra» da. «Zortzi paper fabrika bakarrik gelditzen dira Gipuzkoan; horietatik gehienak eskualdean daude, eta zenbaitzuk nahiko egoera kaskarrean daude». Historian zehar Tolosaldeak paper fabrikekin izan duen identifikazioa galtzen ari dela dio Amianok.

Agirrek, bere aldetik, etorkizunari begira enpresa batzuk ez dutela inongo arazorik izango dio. «Hori bai, enpresa bakoitzak bere historia du».

Amaroztik Legorretara

Amaroz Paper Fabrika 1868an jarri zuten martxan, beraz 143 urte zituen itxi zenean. Ekonomikoki okertzen hasi zenean, 1992an, paper pasta egiteko alorra itxi zuten. «Orduan langile kopurua dezentente jaitsi zen», dio Sanchezek. Hamar urte inguru «nahiko ondo» aritu zirela dio, eta 2006an esan zieten langileei enpresa gaizki zihoala.

«Langileei dirua jartzeko esan ziguten, bestela enpresa itxi egin behar zela», dio Sanchezek. 2007ko martxoa zen itxierarako aurreikusen zen data. Enpresa-

ko bazkide batek utzi egin zuen, eta langile gehienek dirua jarri zuten, 10.000 euro, batez beste, eta administrazio kontseiluan bi ordezkari izan zituzten.

Amaroz Paper Fabrikako zuzendaritzatik azaldu dutenez, «ez bazen kapitalaren handitze hori egin, seguruenek Tolosan bertan hilko zen enpresa». Paper fabrika aurrera ateratzeko aukera ikusi zuten zordunen lehiaketan zegoen Legorretako Paperalia erosi eta lantegi hura martxan jartzea, Amarozko lurzorua birkalifikatu ondoren.

Tolosako Udalak azaldu duenez, gehienek 300 etxebizitza egin ahal ziren paper fabrikaren lurzoruan, zuzendaritzatik zehaztu dutenez. «Garai horietan, 2007 hasieran, 20 milioi euro inguru lortzeko aukera ikusten genuen, etxebizitzaren merkatua nola zegoen ikusita». Paperaliarengatik gehienek 10 milioi euro ordaintzeko asmoa zuten, 20 milioi arte geldituko zenarekin inbertsioak egiteko instalazio berrietan. Baina, aurreikuspen horiek ez ziren gauzatu.

Paperaliarengatik egindako eskaintza 2007ren bukaera arte ez zela onartu esan dute zuzendari-

tzatik, eta orduan jarri zuela Tolosako Udalak martxan birkalifikazio prozesua. «Birkalifikazioa 2008ko martxoan iristen da, eta ordurako ez zegoen promotorerik», diote zuzendaritzatik. «Aurretik interesa zuten promotore guztiak desagertu egin ziren, eta bakarrik Orubide azaldu zen. Honen eskaintza 13 milioietakoa izan zen».

Lurzorua emango zuten diruaren aurreikuspenak jaisteak ondorio zuzena izan zuen enpresaren etorkizunean, zuzendaritzaren arabera: «13 milioiekin ez zen nahikoa eta hor berriro langileek kapital handitze bat egin zuten eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntzak ere jaso ziren. Baina 18 milioi eurotara ez ginen iritsi, eta gutxienez 20 milioi beharrezkoak ikusten genituen Legorretan martxan ondo jartzeko». Bigarren kapital handitzean, batez beste, 4.000 euro inguru jarri zituen langile bakoitzak, Sanchezek dioenez.

2008ko apiriletik 2009ko uda arte Legorretako instalazioak moldatzen aritu ziren. Urtebetez aritu ziren lanean. «Finantziario aldetik herren hasitako proiektua izan da», diote zuzendaritzatik, «eta hainbat arazori aurre egin

beharrean izan gara: hornitzaileen finantziarioaren galera, zelulosa eskasia eta konfiantza galera bankuen aldetik».

Hainbat egoera batera jasan zituztela diote zuzendaritzatik. «Ez gara gai izan arazo guzti horiei buelta emateko, eta zoritxarrez Legorretako instalazioei ez zaie eman aukera erakusteko hor enpresa lehiakor bat egitea zegoenik». Zuzendaritzatik gaineratu dutenez, «langile guztiak egon gara oso identifikatuta enpresarekin eta berau aurrera ez ateratzea kolpe gogor bat suposatu du denontzat».

Zuzendaritza eta langileen artean harreman «nahiko ona» izan dela dio Sanchezek. Kudeaketan ez zirela guztiz fin aritu zehaztu du: «Zuzendaritzak gehiago begiratu zion finantziarioari eta alde batera utzi zuen produkzioa». Egoitz Iturbek azaldu duenez, «azken urteak gogorak izan dira langileentzako, proiektuari irtenbiderik ez baitzaio ikusi».

2011ren hasieran zordunen lehiaketa martxan jarri zen. Zuzendaritzak inbertitzaile berriak izateko aukerak aztertu zituen, baina ez da ezertan gauzatu.



**+Visión
eta barre
egin eskaintzei**

armazioa + kristalak

29€ tik hasita

Gente con
+ VISIÓN

El fin de las gafas caras

Gutxieneko prezioa bermatuta bilduma, kristal eta tratamendu guztietan. Eskaintzarik eta letra txikirik gabe.

masvision.es

Anjel Arrospide Aizkolaria

33 urte aizkora aritu ostean, txapelketak utziko dituela iragarri du Anjel Arrospidek; erretiratzeko une egokia dela erabaki arren, «penaz» utzi du aizkora.

«Aizkolariari gaztetatik nabari zaio nora iritsiko den»

Iñigo Terradillos Leaburu-Txarama

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako finala jokatu zuen martxoan Anjel Arrospidek (Leaburu-Txarama-1956) Aratz Mugertzarekin batera, Unai Otaño eta Joseba Otaegiren aurka. Ezin izan zuen berak nahi bezala bukatu bere azken txapelketa, ez baitzuten irabazi. Dena den, garaipe ugari eskuratu ditu ibilbide osoan zehar, jokoa izan diren ia denak: Euskadiko txapeldun izan da sei aldiz, munduko txapeldun, Gipuzkoako txapeldun bi aldiz, Urrezko kopa bost aldiz eskuratu du, eta Binakako Urrezko Aizkora behin.

Nolatan hartu duzu txapelketak utzteko erabakia?

Urteek ez dute barkatzen, eta entrenatzerakoan eta nabari da. Beraz, nire ustez, arrastaka irteeta baino, hobe da itxuraz egitea. Gainera, gazte asko datoz atzetik.

Penaz utziko zenuen, noski.

Bai. Oraindik aizkora nahiko maila politean nabilela uste dut, baina, nahiago dut garai politean utzi.

Baina, erabat utziko al duzu aizkora?

Oraindik ere ari naiz erakustaldiak egiten, eta aurtengoak behintzat egingo ditut. Gero ikusiko dut erakustaldiekin jarraitu ala ez. Aizkora utzi, ez dut uste utziko dudarik, etxean bada ere, ahal dudana neurrian ariko naiz. Ez dut nire burua sofán eserita ikusten.

Eta desafiorik bada?

Ez dago esaterik. Askotan tabernan izaten dira horrelakoak, afa-londoren. Beraz, agian baliteke taberna giroan sorturiko apusturen bat erortzea. Baina, ez dut uste ondo pentsatutako apustu serioerik izango dudarik.

la bizi osoa igaro duzu aizkora.

Berandu xamar hasi nintzen, 23 urterekin, beraz, denera 33 urte eman ditut.

Nolatan hasi zinen?

Nik afizio pixka bat banuen, eta soldaduskatik itzultzean, herriari, festetan eta pixka bat aritu nintzen aizkora. Koadrila batek apustu txiki baterako prestatu ninduen, eta, horrela hasi nintzen pixkana.

Eta gaur egunera arte, ia txapelketa guztiak irabazita zoaz.

Bai. Edozein kirolaririk firmatuko luke hainbeste lorpen izatea. Euskadiko sei txapel ditut, eta gainerako proba ia denak irabazteko zortea izan dut. Gustura geratzeko moduan nago.

Zein da irabazi ez duzuna?

Urrezko Aizkoraren banakakoa. Txapelketa hau nahiko berria dela esan daiteke, eta ni ez nau nire onenean harrapatu. Ia erretiratzeko urteetan hasi ziren hori antolatzen, eta ezin izan dut banakakoan txapela jantzi.

Irabazi dituzunen artean zein nabarmen duzu?

Euskadiko Txapelketa. Nire ustez herri kirolean dabilen baten-tzat Euskadiko Txapelketa da garrantzitsuen. Euskadikoa beti izan ohi da urteko proba garrantzitsuen, eta hor garaipen bat lortzea izaten dugu helburu normalean kirolariok.

Parte hartu duzun azken txapelketa nola gogoratuko duzu?

Urrezko Aizkoraren Binakako Txapelketa izan da azkena, eta hor finalera iritsi gara Aratz Mugertza eta biok. Pena izan da, horriraino iritsi, eta ez irabaztea. Nire asmoa aizkora garaipena lortuz uztea zen, sentsazio onarekin geratzeko, baina ez da posible izan. Dena den, gustura geratu naiz txapelketa horretan erakutsitako mailarekin.

Eta parte hartu duzun lehen txapelketa nola gogoratzen duzu?

Aizkora hasi eta lehen apustua 24 urterekin egin nuen. Jaunaren aurka jokatu nuen, leitzar pilotariaren aitaren aurka. Galdu egin nuen apustu hura. Apustua



GOTZON ARANBURU

jokatu eta berehala Euskadiko Txapelketarako sailkapen proba izan nuen, eta aurrera egitea lortu nuen, beraz oso pozik geratu nintzen. Aizkora nire lehendabi-

«Aizkorak poza eta etsipena eman dit, baina poza handiagoa izan da»

ziko urtean Euskadikorako sailkatzea ez nuen espero, beraz, txapela irabazi izan banu bezala poz nintzen.

Nola ikasi zenuen aizkora?

Ramon Latasarekin aritu nintzen hasieran. Gero, lehen apusturen ondoren, Astibiarekin jarraitu nuen ikasten. Urte asko egin nituen berarekin, eta gero, Aierberekin ere aritu nintzen. Berarekin urterik oparoenak egin nituen.

Apusturik entzutetsuena zein izan da?

Lehendabiziko txapela irabazi, eta Mindegia desafioa bota nion, 12 oinbikotara. Lehen txapela baino ez nuen irabazi, jendeak ez zuen konfiantza handiegirik oraindik nigan. Baina irabazi egin nuen apustua, eta marka ezarri, gainera. Oraindik ez du inork marka hura hobetu. Apustu horixe izan da entzutetsuena.

Zer eman dizu aizkorak?

Poza handia eman dit, eta baita etsipenak ere, kirolari guztiarekin gertatzen den bezala. Denetarik izan dut, urte ez hain onak eta oso onak, eta azkenaldian ere nahiko txukun aritu naizela esan dezatuen ondoren, Astibiarekin jarraitu nuen ikasten.

Gastu handiak dituen kirola da aizkora.

Nik beti lana egin behar izan dut, aizkoratik ezin baita bizi. Baina,

nire kasuan, behintzat, aizkorak gastu handiak izan arren, ondo joan zaidala esango nuke, erakustaldi ugari egin baititut.

Aizkolari gazte asko datozela aipatu duzu. Zein nabarmenduko zenuke?

Asko daude. Gaztetatik ikusten zaie goiko mailara iristeko ezagarririk dituzten ala ez. Baina, gero puntu batera iristen dira, non badirudien geratu bezala egiten direla. Gaur egun badaude kalitate dutenak, Larretxearen semea edota Erasun, esaterako. Sufritzen baldin badakite, gora iritsiko dira.

Etorkizuneko aizkolarie jarraituko diezu, noski.

Bai. Guk ez badiegu jarraitzen, norik bestela? Gainera, gazteren bat etortzen bazait laguntzen ere saiatuko naiz. Aizkora asko gustatzen zait, beraz, ondo nabilen bitartean mundu honetan jarraituko dut.

Ama



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologia

Bada bizidunen historian biologiako liburu oso gutxitan agertzen den protagonista bat. Protagonista honek milioika urte daramatza Lurrean eta berau gabe ez litzateke bizidunik egongo gure Lur planeta maite honetan. Are gehiago, beste planetetan bizidunik bada, protagonista hau ere bertan egongo da. Protagonista hau 'ama' izenez ezagutzen dugu eta gaurkoan, berarek eskainiko diegu zutabe xume hau.

Bizidunak planeta hau zapaldu zuten lehen alditik, hor zegoen ama bat. Noski, ama honek ez zien lehen bizidunei ohea egiteko esaten edo *tupperetan* hurrengo egunerako janaria prestatzen. Lehen ama hau borobila zen eta itsaso zabal eta epel batean bizi zen bera bakarrik. Egun batean, izugarritzko esfortzu bat eginez, bitan zatitu zen, eta beste bitan eta beste bitan... gero, itsaso zabal eta epel hura milioika kumetxoz betez.

Milioika urteren ostean, ama hauek arrautza asmatu zuten eta ehunka arrautza askatzen zituzten itsaso zabalean. Arrautza hauek ere bertan agian ama izatera iritsiko ziren eta ama berri hauek berrituz arrautza gehiago errungo zituzten beste milioika urtetan zehar...

Itsaso hutsez betetako planeta hartan lehen lur lehorra agertu zenean, amak ere bertan egon ziren. Lur lehorra konkistatu zuten lehen amek oskol gogorrek lurreko arrautzak asmatu zituzten, arrautza hauek habi erosoetan gordetzen zituzten eta amek bizia ematen zuten beraiek babesteko. Baina, behin errun ostean, kumeak ihes egiten zuten habitik eta jada amak ez zeukan betebeharririk hurrengo kumaldia arte.

Benetako amen erreboluzioa ordea animalia plazentarioekin iritsi zen: izenak dioten bezala ama hauek plazenta izeneko egitura bat asmatu zuten. Plazenta honekin jada ez zegoen arrautzak zaindu beharrik, kumeak amaren barrua joaten baitziren jaiotze egunerara arte. Jaio ostean kume hauek beraien kasa bizitzen ziren... amek, ugatzak edo titiak asmatu zituzten arte.

Ugatzun amak izan ziren askatikun honen egileak, ugatza edo titiekin, kumeak ez zeukan bere kasa bizitzeko presarik, amak ematen baitzion elikagaia bere gorputzetik. Modu honetara, kumea garapen gutxiagorekin jaio ahal zen eta ongi garatu arte amarekin bizi ahal zen bere ugatzetako esne elikagarria edanez.

Milioika urteren ostean ugatzunok amaren barruan garatzen jarraitzen dugu, jaio ostean amaren esneaz elikatzen gara, urte askotan zehar amak emandako dirurarekin bizi gara eta behin etxetik alde egiten dugunean amaren janariarekin amesten dugu gauero.

Hala ere, ba omen dira ama 'gaiztoak'. Armiarma espezie batzuetan, armiarma amak kumeak gainean eramaten ditu eta hauekako bat erortzen bada irentsi egiten du. Laborategiko saguek ere beraien kumeak jateko joera omen dute eta zoo-etako gorila amek sarritan kumetxo jaioberriak zapaldu eta ito egiten omen dituzte.

Armiarma amak, ama txarrak ote dira? Agian ez al dugu pentsatu behar armiarma espezie horrek gerturako ikuspena nahiko murrizta duela eta erortzen zaizkion kumeak, intsektu batekin nahastu eta jaten dituela? Laborategiko saguak ere ama maltzurak ote dira? Ez al da egia, laborategiko saguak beraien bizitza osoa kaiola baten barruan igarotzen dutela, froga ugari sufrutuz egunero. Ez al ginateke gu ere zoratuko bizimodu honenkin? Ez al ginateke zoratuko ere, zoo-ko gorila ama baten antzera bizitza osoa hiru pareta eta kristal baten barruan egonda? Eta zutabetxo hau irakurri ostean, ez al genieke amei urtean lauzpabost egun eskaini behar, gutxienez? Zorionak zutabetxo honen atzean zaudeten ama guztiei!

Gipuzkoa Zero Zabor taldeak errauste plantak baztertze eskatu du

Alegia, Tolosa, Ibarra, Lizartza, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Asteasuko taldeek bat egin dute

Rebeka Calvo

Gipuzkoan batere zaborrik ez sortzeko filosofiarekin bat egin duten plataformak Gipuzkoa Zero Zabor taldean batu eta errauste planta egitearen kontra azaldu dira. 34 talde izan dira «gure hondakinak zabor toxiko» bihurtzearen kontra azaldu direnak tarte-

an eskualdeko Alegia, Anoeta, Ibarra, Lizartza, Irura, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil.

Aipatu taldeek Gipuzkoa «bidegurutzean» dagoela esan dute eta Europatik datorrena, beraiek proposatzen dutena dela aldarrikatu dute. Izan ere, Europako Parlamentuaren Ingurumen Batzordeak hondakinak kudeatzeko bestelako eredu baten alde egiteko eskatu du txosten batean.

Era berean, Europako Zero Zabor mugimendua jardunaldiak antolatuko ditu Donostian maiatzaren 11tik 13ra bitartean eta Gipuzkoa Zero Zabor taldea ekitaldi horretan izango da.

Gutuna

Asuncion klinikak Osakidetza-rekin daukan hitzarmenean sinatuta dagoen bezala, martxan jarri du etxeko ospitalizazio zerbitzua. Zerbitzu honek, ospitaleratuak izan gabe, gaixo mota batzuen zaintza beharrik ez dute eta zoo-etako gorila amek sarritan kumetxo jaioberriak zapaldu eta ito egiten omen dituzte.

Lehenik eta behin, esan, ez daukagula inongo arazorik etxeko ospitalizazio zerbitzuarrekin, esan bezala oso lan ona egiten delako. Arazoa Asuncion klinikak emango duen zerbitzu zehatz honenkin daukagu, arrazo hauengatik:

1- Asuncion klinikak emango duena, Donostia Ospitaleak Tolosaldeari duela urte asko eman diona ordezkatzen du; erabilitzaileak oso gustura zeuden eta guk erreferentzi bezala eta konparatzeko hartzen dugu. Ezin ahaztu, ez garelako zerotik hasten, Donostia Ospitaletik ematen zen zerbitzua maila profesional altuko zen (gizatasun, enpatia eta asertibitateaz... gain) eta orain urritzen ari dela ikusten dugu.

2- Asuncionek emango duen zerbitzu zehatz hau, profesional kopuru aldetik eskasa da:

Osakidetza-rekin sinatutako akordioan jartzen duenez, zerbitzu hau hiru medikuk osatu behar dute, baina, kasu honetan bi medikurekin bakarrik hasi da, eta berrietako batek zerbitzua buru lana egiten du, gainera.

Beste eskualdeetako ospitale publikoek ematen duten zerbitzuarrekin konparatuz gero, kopuru hau oraindik eskasagoa dela ikusten da: 3 mediku Deba Garaia eta Bidasoan; 4 mediku Mendaron; eta 5 mediku Zumarragan. Guzti hauetan medikuek gain, beste bat dago zerbitzua buru lanetarako.

3- Beste arazoak kualifikazio mailarekin dugu: hitzarmenean bertan irakurri daitekeen bezala, eta beti ere beste eskualdeetako ospitale publikoetakoa erreferentzi moduan izanda, zerbitzu hau osatzen duten medikuek espezializazio maila zehatzak izan behar dituzte: berne medikuntza edo familia medikuntza.

Asuncion klinikak martxan ja-

→ Laburrak

'Zazpi etxe Frantzian'ek saria irabazi dezake

ASTEASU Bernardo Atxagaren *Seven houses in France* (*Zazpi etxe Frantzian*) liburua aurrera egin du Shadow Independent Foreign Fiction Prize sarian, eta sei finalisten artean dago. Atzerriko fikzioaz idazten duten Erresuma Batuko blogariaren kolektiboak egin du hautaketa.

Gizon bat hil da Anoetan, trenak harrapatuta

ANOETA Herenegun gizon bat hil zen Anoetan, Tolosaldeko noranzkoan zihonan tren batek harrapatuta. 60 urte zituen eta oinezkoen pasabidea zeharkatzen ari zen. Unean hil zen.

rri duen zerbitzu hau aztertzen badugu, lanean dauden bi mediku eta inork ez du kualifikazio maila hori, mediku orokorrak dira.

Urrutitik eta prentsako hainbat erreportajeren laguntzarekin benetako zerbitzua daukagula pentsatu daiteke, baina ondo aztertzen jarrita, sare publikoan ematen denetik oso urruti dagoela ikusten da.

Etengabe entzuten ari gara Asuncion klinikak beste eskualdeetako ospitale publikoek ematen duten zerbitzu eta kalitate maila emango digula. Bai honekin eta baita beste gai batzuekin ere, garbi gelditzen da ez duela hitzarmenetan sinatutakoa ere betetzen, eta Tolosaldeako osasun arretaren kalitate maila jaisten ari dela.

Non dago Osakidetza eta Osasun sailetik saldu nahi duguten beste eskualdeekiko berdintasuna?

Non daude ikuskaritza lanak zerbitzu kalitate hori bermatzeko?

■ **Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde** plataforma. Tolosa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EKAITZA
ARRATSALDEA	EKAITZA
BEROENA	22°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraut, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Hirukide ikastetxeak jakinarazi duenez gaur irekiko dute Batxilergoan matrikulatzeko epea eta maitzaren 11ra arte egongo da zabalik. Hau dela eta, bihar, maiatzak 3, eta hilaren 8an Ate Irekien jardunaldiak egingo dituzte Bigarren Hezkuntzako eraikinean (Hirukide Eskolapioetan), 17:30etik 19:30era. Bertan, besteak beste, Batxilergoko ibilbide guztiak, Batxilergo eleanitza eta Hirukidek burutzen dituen ikasle-elkartrukeen inguruko informazioa emango dute.
- **Tolosa.** Nafarroako Estatua Gogoan ekimenaren barruan, bihar, maiatzak 3, 19:30ean, *Herri baterako mapak* erakusketa-aren inaugurazioa, Aranburu jau-regian. Lanak maitzaren 27ra arte ikusi ahal izango dira. Erakusketarekin batera, izen bereko liburua idatzi duen Jose Mari Esparak hitzaldia eskainiko du.

ZINEMA

- **Zizurkil.** Maiatza Saltsan ekimenaren barruan etzi, ostirala, 22:00etan, *Gartxo* filma ikusteko aukera izango da Aurrera plazan. Eguraldi txarra eginez gero goiko zimiterioan eskainiko dute. Sarrera doakoa da.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Poltsikoko Lehiaketako hirugarren kanporaketa, etzi

Asvineneak antolatzen duen txapelketako finala ekainaren 1ean izango da; saioak 22:30ean hasiko dira

Rebeka Calvo Aduna

Asvineneak antolatzen duen VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa hirugarren geltokira iritsiko da ostiralean, hilak 4. Hirugarren kanporaketan ere sei taldek hartuko dute parte, eta horietako bi iritsiko dira finalurrekoetara; galako irabazleak eta ikusleen saria eskuratzen duenak.

Horiek horrela, lehen galako irabazleak hartuko du parte maitzaren 18ko finalerdian, hau

da, Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen *Pazo o no pazo*. Eta maiatzaren 25ko bigarren finalerdian bigarren kanporaketako sarituaren lana, hau da, Mutandus Russum taldearen *Tarta-Trata*, ikusi ahal izango da.

Ikusleen sariari dagokionez, lehen kanporaketan Vantarenen *¡Oh fortuna!* lanak jaso zuen izendapena, eta beraz, maiatzaren 25ean berriz ere antzeztu beharko dute lana. Bigarren kanporaketan ikusleek Tik Tak taldearen *Zoriontasun itsua* aukeratu zuten, eta maiatzaren 18an ikusi ahal izango da antzelana.


Saioak eta gehiago

Saio guztiak 22:30ean hasiko dira, baina Asvineneako arduranez arte eszenaikoan laborategia eza-

gutzeko aukera eman nahi diete herritar guztiei, eta horregatik 21:00ak aldera irekitzen dituzte ateak. Gunea ezagutzeko aukera emateaz gain, zerbait hartzeko gonbita luzatzen dute zentroko arduradunek, eta baita kanporaketak bukatu ondoren bertan geratu eta festa luzatzeko ere. Saioak 00:30ak aldera bukatu ohi dira.



Bigarren kanporaketako lanetako baten irudia. MAFFASSANTI



Lanez gain, ikuskizun ugari eskaintzen ditu Asvineneak. MAFFASSANTI

Eneko Garmendia Zubeldia (masajista)



San Juan kalea 67 ♦ Alegia ♦ Tel.: 608 321 904

Aurten noraino?



Apirilaren 11tik aurrera

INFORMATIKO FUTBOLARI INJINERU ARRAUNLARI DANTZARI

Atz itxialdi: maiatzaren 3an eta 4an 17:30etik 19:30era

Tolosa: Benilegiongo Itxialdi guztiak 25koetara bidaltzeko beharrezkoak dira: 25koetara bidaltzeko beharrezkoak dira: 25koetara bidaltzeko beharrezkoak dira

BAT Hirukide

San Blas auzoa 27 - 943 67 03 11 - hirukide@hirukide.org - www.hirukide.org/bat